



2024ko LEHEN SEIHILEKOKO EMAITZAK

2024ko uztailak 31

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HONEK INFORMAZIO-HELBURUA DU SOILIK.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1. 2024ko 1SHko DATU
AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA INFORMAZIOA
3. BURTSAKO INFORMAZIOA
4. JASANGARRITASUNA
5. AURREIKUSPENAK
6. ERANSKINAK



 1

2024ko 1SHko DATU AIPAGARRIENAK

KONTRATAZIOA

1.723 M€
-% 12

vs 2023ko 1SH

ESKARI ZORROA

13.843 M€
-% 3

vs 2023/12/31

SALMENTAK

2.080 M€
+% 11

vs 2023ko 1SH

EBIT

102 M€
+% 20

vs 2023ko 1SH

EBIT mj

% 4,9
ehuneko +0,4
puntu

vs 2023ko 1SH

EMAITZA GARBI EGOZGARRIA

52 M€
+% 52

vs 2023ko 1SH

Cash flow-a

-28 M€

FZG

284 M€

FZG/EBITDA

0,9x

JASANGARRITASUNA

MSCI: AA (hobekuntza A-tik)
Sustainalytics: arrisku txikia

Kontratazio maila handia 2024ko 2HHan. Seihilekoan, *Book-to-bill*=0,8 lortu da.

Oraindik sinatzeke dauden esleipenak beste 170M€ inguru seihilekoaren amaieran.

Eskarien zorro handiak indarrean dagoen Plan Estrategikoan 2026ra arte proiektatutako hazkundearen zati handi bat bermatzen du.

Salmentetan bi digituko hazkundera izan da, errentagarritasun operatiboa pixkanaka hobetu da eta emaitzetan igoera esanguratsua izan da.

Kutxaren sorkuntza ekitaldiaren hasieran aurrez ikusitakoaren araberakoa izan da.

Egonkortasun finantzarioa.

Lidergoa jasangarritasunean; ASG kalifikazioak konparagarriak diren beste lehiakideen gainetik daude.

2024KO EKITALDIRAKO URTEAREN HASIERAN IRAGARRITAKO AURREIKUSPENEK ALDAKETARIK GABE JARRAITZEN DUTE

LORPEN HANDIAK FUNTSEZKO HERRIALDE ETA JARDUERETAN

/ CAF-EK SEINALEZTAPENEN BERE NEGOZIOA INDARTU DU ESPAINIAN ETA ERRESUMA BATUAN

Arrakasta Espainian. ADIFek seinaleztapeneko hainbat esleipen egin ditu eta horien balioa 150M€ baino handiagoa izan da.

Kontratuen irismenak ADIFen sare konbentzionaleko, zabalera metrikoko eta abiadura handiko seinaleztapeneko eta zirkulazioa kontrolatzeko sistemak berritzea jasotzen du.

CAF Signallingek bere ERTMS teknologia instalatuko du Britainia Handiko tren-azpiegitura modernizatzeko proiektu berrian.

CAF Erresuma Batuan 2. mailako ERTMS seinaleztapen digitaleko kontratua (2. lotea) sinatu duten 4 erakundeetako bat da. Horren aurrekontua 3.500 milioi euro ingurukoa da eta hamar urteko iraupena izango du.

Mugarri horrek sarbidea eta epe ertainerako posizionamendua ematen ditu seinaleztapenean inbertitzen duen bolumen handiko merkatuan.



/ SOLARIS AUKERATU DUTE FRANTZIAN HIDROGENO AUTOBUSAK HORNITZEKO

Interes handiko merkatuaren pixkanakako irekiera mugikortasun arloko inbertsioen potentzial eta errekurrentzia handia dela eta.

Trenen negozioari dagokionez, CAF da herrialdeko #2. hornitzailea.

Gaur egun, Solarisek Paris hiriarri trolebusak entregatzeko kontratua du zorroan.

Solarisen lidergoa hidrogenoaren Europako merkatuan.


Solarisen hidrogeno-teknologiaren kredentzialak: Europan 2023an matrikulatutako hidrogeno bidezko autobusen % 45 Solaris ibilgailuak izan ziren.

Gaur egun, Solarisek hidrogeno bidezko 544 autobus ditu zorroan eta, ondorioz, 2023aren amaierako hidrogeno bidezko autobusen parkea gainditu du.




KONTRATAZIO MAILA HANDIA BIGARREN HIRUHILEKOAN, ETA URTEAN ZEHAR ORAINDIK GAUZATU BEHARREKOA IZANGO DEN AUKEREN BOLUMEN HANDIA


/ GUZTIRA (M€)



/ KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



/ KONTRATAZIOAREN BANAKETA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



2024/06/30eko kontratazioak ez ditu esleitutako, baina oraindik sinatu gabe dauden kontratuak biltzen. Horien balioa 170M € ingurukoa da.

Ekitaldiko gainerako hilabeteetarako aukera komertzialen bolumena sendoa da oraindik ere.

Neurri ertaineko proiektuen kontratazioak (batez ere trenen segmentuan) **bizkortu egin du kontratazioa 2024ko 2HHan.**

900M € inguru arte 2024ko 2HHan iragarritako etorkizuneko kontratazioei lotuta.

Btb=0,8 Talde osoan urteko lehen seihilekoan.

Btb=0,8 trenetan

Btb=1,1 autobusetan

2024ko 1SHko trenen kontratazioan honako hauek daude sartuta (besteak beste):

- Espainiako, Norvegiako, Holandako eta AEBko tren-ibilgailuak.
- Sistema integralak Mexikon eta seinaleztapen-sistemak Espainian.
- Hainbat geografiatan, mantentze-lanetarako kontratuak berriro dira (eta horien artean, Europakoak nabarmendu behar dira).

Autobusetan, merkatuan zero isurpeneko ibilgailuek izandako eskari handiaren ondorioz, **Solarisek 2024ko 1SHan berriro ere arrakasta izan du eta aurkeztutako eskaintzei dagokienez bolumen historikoa lortu du (oraindik esleitzeke daude).**

Herrialdeka, **CAF oraindik ere Espainiako parke mugikorra berritzeko gaur egun abian dagoen prozesuaren ondorioak jasotzen ari da** (oraingoa, Madrilgo Metroaren eskutik).

(jarraipena)

2024ko 2HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak

/ METRO UNITATEAK OSLORAKO (NORVEGIA)

- 20 metro-tren (bakoitza 3 kotxeoak) eta dagozkien parkeko piezak.
- **CAFen metro-plataforman, INNEO** izenekoan, oinarritutako unitateak.
- Bateriekin ekipatuta daude eta, hala, katenariarik gabe zirkulatu ahal izateko autonomia dute. Gainera, etorkizunean GoA4 gidatze autonomia izateko prestatuta daude.
- **Horixe izan da azken urteotan CAFek Oslo hirian irabazitako hirugarren kontratua** (autobusa, tranbia eta metroa).
- Kontratuak, gainera, **etorkizunera begirako aukera osagarriak** jasotzen ditu (gehienez beste 90 unitate).

> 150M€



/ METRO UNITATEAK MADRILERAKO (ESPAINIA)

- Galibo zabaleko 40 tren (bakoitza 6 kotxeoak).
- Modu erdiautomatikoan (GoA2) zein erabat autonomoan (GoA4) funtzionatzeko aukera eskaintzen dute.
- CAFek lehendik ezagutzen zuen bezeroak **berriro ere jarri du enpresan konfiantza**.
- Kontratuak **etorkizunerako aukera osagarriak** jasotzen ditu.

400M €
inguru



/ OMAHARAKO TRANBIAK (AEB)

- 3 moduluko URBOS plataformako 6 tranbia.
- Zirkulazio mistorako (katenariarekin eta gabe) **ibilgailu barruko energia metaketa-sistemarekin** ekipatuta dagoen eta AEBra zuzenduta dagoen CAFeko lehen tranbia da.
- Kontratuak, gainera, **etorkizunera begirako aukera osagarriak** jasotzen ditu (gehienez beste 29 unitate).

50M €
inguru




/ ISURPEN BAXUKO AUTOBUSAK ERROMARAKO (ITALIA) ETA AUTOBUS ELEKTRIKOAK NOBINA OPERADOREARENTZAT (SUEDIA)

- ATAC S.p.A. (Italia) operadorearekin sinatutako kontratuek honako hauek biltzen dituzte:
 - Artikulatutako 110 Mild-Hybrid ibilgailuen hornidura.
 - GNKarekin propultsatutako 244 autobusen (12 m-koak) hornidura. Eskariak, gainera, **ibilgailu kopurua beste 78 unitatetan handitzeko aukera** jasotzen du.
 - **Ibilgailuen mantentze-lanak 10 urtez.**
- Nobina operadorearekin (Suedia) sinatutako kontratuak honako hauek barne hartzen ditu:
 - Urbino 15 LE modeloko 70 hiri arteko autobus elektrikoren hornidura.
 - Urbino 18 modelo artikulatutako 18 autobus elektrikoren hornidura.

> 250M€



ESKARIEN ZORROAK ETORKIZUNEKO JARDUERAREN IKUSGARRITASUN HANDIA EMATEN JARRAITZEN DU



Zorroak beheranzko doiketa txikia izan du aldi horretan izandako exekuzioa kontratazioa baino handiagoa izan delako.

Egungo zorroak indarrean dagoen eta 2026ko helburua duen **Plan Estrategikoan aurrez ikusitako hazkundearen zati handi bat bermatzen du.**

Zorro horrek **ez ditu jasotzen** sinatzeke dauden eta **170M € inguruko guztizko balioa** duten esleipen hauek:



- ADIFentzako (Espainia) seinaleztapen-kontratuak.
- Autobus elektrikoen kontratuak Europan.

Zorroko kontratuei lotuta dauden eta bezeroak gauza ditzakeen etorkizuneko aukeren bolumen handia ere ez dago sartuta.

¹ Ratioa 2024/06/30ean, 2023an izandako salmenten arabera kalkulatuta.



ESPAINIAK ESKARIEN ZORROAN IZANDAKO EKARPENA HANDITU EGIN DA

/ ZORROAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



- Osaerari dagokionez, **zorroa egonkorra da** eta autobusen zorroak bakarrik izan du iguera arina aldi horretako Btb >1en ondorioz.

/ ZORRAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



- Espainiaren garrantzia handitzen ari da berriro ere.** Oraingoan, Madrilgo Metrorako unitateak hornitzeko irabazitako kontratuari esker izan da; aldiz, Europako gainerako herrialdeek lehengo pisua mantendu dute.



/ 2
FINANTZA
INFORMAZIOA

BI DIGITUKO HAZKUNDEA, ERRENTAGARRITASUN OPERATIBOAREN HOBEEKUNTZA ETA EMAITZEN IGOERA ESANGURATSUA

(milioi eurotan)	2023ko 1SH	2024ko 1SH	Ald. 2024ko 1SH/ 2023ko 1SH
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	1.877	2.080	+% 11
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	85	102	+% 20
EBIT Marjinaren %	% 4,5	% 4,9	
Finantza arloko emaitza	(29)	(25)	-% 14
Finantza-sarrerak	6	13	+% 102
Finantza-gastuak	(35)	(32)	-% 8
Trukeko edo kanbioko aldeak	(2)	(5)	+% 138
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	1	(1)	
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundearen emaitza	5	3	-% 45
ZERGEN AURREKO EMAITZA	61	79	+% 31
Irabazien gaineko zerga	(25)	(25)	+% 3
Zergen ondoren, emaitza garbia	36	54	+% 49
Interes minoritarioak	1,6	1,6	+% 1
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	34	52	+% 52

Bi digituko igoera salmenta bateratuetan, trenen segmentuak bultzatuta.




Ustiapen-emaitza salmenten gainetik hazi da eta EBITa marjinak oinarritzko 40 puntuko gorakada izan du. Horrek agerian utzi du **errentagarritasuna hobetzeko bidean Taldeak izandako bilakaera ona dela.**

Finantza-emaitza hobetu egin da altxortegiko soberakinek izandako errendimendu positiboari eta zorrari lotutako finantza-gastu txikiagoari esker.

Horrez gain, karga fiskalak mantendu egin dira eta, ondorioz, **sozietatearen emaitza garbiak % 52 egin du gora;** 52M € arte lehen seihilekoan.

SALMENTEK BILAKAERA ONA IZAN DUTE, EXEKUZIO PROGRAMAK EZARRITAKOAREN ARABERAKOA


SALMENTAK



JARDUERA LERRO GUZTIETAN IGO DIRA SALMENTAK

TREN ARLOKO SALMENTAK


/ TREN IBILGAILUAK



Honako hauek izan dira 2024ko 1SHko salmentetan eragin handiena izan duten proiektuak: Myanmarrerako eskualdeko trenak, Docklands Railentzako (Erresuma Batua) metro-unitateak, SNCFrentzako (Frantzia) Regiolis eskualdeko unitateak, pisu bikoitzeko unitateak NSrentzat (Herbehereak), Oxygène eskualdeko trenak SNCFrentzat (Frantzia) eta aldiriko trenak RATPentzat (Frantzia).


Batera kalkulatuta, **aldi horretako salmenten % 40 inguru biltzen dute.**

/ ZERBITZUAK



Jarduera-lerro guztietan (mantentze-lanetako zerbitzuen exekuzioa, ordezeko piezen eta tailerreko ekipamenduaren hornidura eta zerbitzu digitalen salmenta) **gertatu da gorakada** hainbat geografiatan.

/ SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK




Salmentek aldi baterako gorakada izan dute, zorroaren exekuzio-planak ezarritakoaren arabera.

Mexikoko proiektu integralek eta seinaleztapen-zerbitzuak eragin dute igoera horren zatirik handiena.


URTEKO LEHEN SEIHILEKOAN, ZORROAREN GAUZATZEA HANDIA IZAN DA ETA URTEAREN AMAIERARAKO ENTREGEI DAGOKIENEZ ERREKORRA HAUSTEA AURREZ IKUSI DA

AUTOBUSEN SALMENTAK

/ ENTREGATUTAKO AUTOBUS KOPURUA



/ ZORROKO AUTOBUS KOPURUA



725 autobus entregatu dira 2024. urtearen lehen erdian, **planean aurrez ikusitakoaren arabera**. Planak urtearen bigarren erdialdean aurrez ikusi du entregen bolumen handiagoa.

Propultsio alternatiboko autobusek errekor berria ezarri dute; izan ere, **aldi honetako entregen % 90 bildu dute**.

Entregatutako autobusen % 40 elektrikoak izan dira; hau da, **bateria edo hidrogeno bidezkoak**.

Seihilekoaren amaieran, **autobusek bolumen handia izan dute eskarien zorroan (haitako % 84 propultsio alternatibokoak)**. Horri guztiari, gainera, **salmenta osteko zerbitzuek pilotutako zorro handia** gehitu behar zaio.

Zero isurpenak

Autobus **elektrikoen** % (elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)

% 53

% 40

% 70

Trolebusen %

% 14

% 20

% 8

Isurpen baxuak

Autobus **hibridoen** %

% 14

% 30

% 6

Emobility autobusen **GUZTIZKO** % (zero isurpenak eta isurpen baxuak)

% 81


% 90

% 84


EMAITZEK GORAKADA ADIERAZGARRIA IZAN DUTE ETA ERRENTAGARRITASUNA HOBETU EGIN DA SOLARISEK IZANDAKO EKARPEN POSITIBOARI ESKER

EMAITZA

EBIT (M€) eta EBIT marjina (%)¹



EMAITZA GARBIA, INTERES MINORITARIOEN ONDOREN (M€)



Taldearen EBITak % 20ko igoera izan du.

Emaidza garbiak % 52ko hedapena (zifra handia da) izan du eta Solarisek, berriro ere, ekarpen positiboa izan du datu horretan.

Segmentuka:

Trenak:

Emaidzan eta marjina oraindik ere eragina dute kostuen gorakada jasandako proiektuen exekuzioak eta, neurri txikiagoan bada ere, baita kudeaketarako sistema informatiko berriak abian jarri izanak izandako eragin iragankorrek ere.


Autobusak:

EBITak hobekuntza adierazgarria izan du, eta errentagarritasunak ere aurrerapen aipagarria. Horrek guztiak **baieztatu egin du eskari-zorroaren errentagarritasuna pixkanaka suspertzen ari dela.**

¹Zehaztutako autobusen EBIT datuak dagoeneko deskontatu du CAF Taldearen Solarisen erosketako amortizazioa (6M€/urtean, gutxi gorabehera).

KUTXAREN SORKUNTZA EKITALDIAREN HASIERAN AURREZ IKUSITAKOAREN ARABERAKOA IZAN DA


/ EBITDA-CASH FLOW BRIDGE-A (M€)




FINANTZA MAILAKO EGONKORTASUNA URTEAREN LEHEN ERDIALDEAN

(milioi eurotan)	2023/12/31	2024/06/30
Aktibo finkoak	1.371	1.321
Zirkulatzailan egindako inbertsioa	(74)	14
Aktibo garbia	1.297	1.335
Ondare garbia	868	868
Finantza-zor garbia	256	284
Beste aktibo eta pasibo batzuk	173	183
Ondarea eta pasibo garbia	1.297	1.335

/ CAPEX (MATERIALA + INMATERIALA) (M€)




/ ZIRKULATZAILE GARBIA (M€)



Zirkulatzaila garbiaren bilakaeran honako bi hauek izan dute eragina, batez ere: **Solarisen inbentario mailaren gorakada eta jardueraren igoera.**

FZG/EBITDA RATIOAK EZ DU ALDAKUNTZARIK IZAN


/ FINANTZA ZOR GARBIA (M€)



Finantza Zor Gordina	820	789
Altxortegia eta finantza-inbertsioak	564	505
Finantza Zor Garbia	256	284

ZOR GORDINAK JAISTEN JARRAITZEN DU URTEAREN LEHEN ERDIAN

/ LIKIDEZIA (M€)




/3 **BURTSAKO** **INFORMAZIOA**



2024KO 1SH-AN % 10 BAINO GEHIAGO GORA EGIN ONDOREN, ANALISTEK GOMENDATZEN DUTE % 25 BAINO GEHIAGOKO POTENTZIALAREKIN EROSTEA


CAF-EN BILAKAERA VS IBEX ETA SEKTOREA¹



BURTSAKO ADIERAZLEAK

	2024/06/30
Burtsako kapitalizazioa (eurotan)	1.203.254.325
Akzio kop.	34.280.750
Azken kotizazio-prezioa (eurotan)	35,1
Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	36,1
Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	31,1
Negoziatutako bolumena (milaka akzio)	3.607
Negoziatutako eskudirua (milaka euro)	120.146

AKZIOEN EGITURA



² % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu (Iturria: CNMV). Likidezia-kontratuari lotutako autozorroko ekintzak ere barne hartzen ditu.

EZ DA ALDAKETARIK IZAN ENPRESAREN AKZIODUNEI DAGOKIENEZ

An aerial photograph showing a landscape with a road, railway tracks, and green fields. The road is a two-lane asphalt road with a white dashed center line. To the left of the road are railway tracks with gravel ballast. The surrounding area is lush green with trees and fields. The text '4' is overlaid on the image, with a red diagonal slash to its left.


/ 4

JASANGARRITASUNA

AURRERAPEN HANDIAK IZAN DIRA JASANGARRITASUNAREKIN LOTUTAKO GURE KOMPROMISOETAN, 2026KO PLAN ESTRATEGIKOAN EZARRITAKAOREN ARABERA¹

/ MUGARRI ESANGURATSUENAK

/ FINANTZAKETA BERDEAREN ETA JASANGARRIAREN LEHEN ESPARRUA ARGITARATU DA



/ HORNITZAILEAREN JOKABIDEAREN KODEA EGUNERATU DA



/ MATERIALTASUN BIKOITZEKO AZTERKETA EGINDA EFRAG-EN IRIZPIDEAK ETA JASANGARRITASUNEO INFORMAZIOAREKIN LOTUTAKO EUROPAKO ARAUAK (NEIS EDO ESRS, INGELESEZKO LABURDURATAN) KONTUAN HARTUTA




/ S&P INDIZE PRESTIGIOTSUAK CAF ESPAINIAKO 30 ENPRESA JASANGARRIENEN ARTEAN KOKATU DU




/ EMAITZAK

/ KALIFIKAZIO AGENTZIAK

/ AA kalifikazioa jaso du CAFek MSCI ESG ratingean



/ Beste behin, Sustainalyticsek "low risk" kalifikazioarekin aitortu du CAF



¹ Informazio gehiago dago eskuragarri eranskinetan jasota dagoen Jasangarritasuneko Aginte Koadroan edo sozietatearen webgunean (www.caf.net) argitaratutako 2024ko 1SHko Kudeaketa Txostenean.



/5

AURREIKUSPENAK

EZ DAGO ALDAKETARIK 2024RAKO AURREIKUSPENETAN

/ 2024¹

Book-to-bill	>	≥1 Kontratazio selektiboa
Salmentak	>	+% 10 ingurukoa 2023 urtearekiko
EBIT Emitza garbia	>	Errentagarritasunaren hobekuntza 2023 urtearekiko
Dibidendua	>	Emitzen bilakaerarekin bat dator
FZG/EBITDA ratioa	>	Egonkortasuna 2023 urtearekiko
JASANGARRITASUNA	>	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

¹ Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on laptops and tablets. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused atmosphere. The text '6 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.


6 ERANSKINAK

2024KO URTARRILA-EKAINA ALDIAN IRAGARRITAKO ETA ESKARI ZORROAN SARTUTAKO KONTRATUAK

DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	NEGOZIOA / JARDUERA	DESKRIBAPENA	MOTA	BEZEROA	AUKERA OSAGARRIAK	ZENBATEKOA
2024ko 1HH	Qbuzz	Herbehereak	Trenak / Tren-ibilgailuak	Civity aldiriko 10 trenen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 1HH	Kolonia	Alemania	Autobusak	Hidrogenozko 20 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 1HH	Île-de-France Mobilités	Frantzia	Autobusak	Hidrogenozko 22 autobusen hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	-
2024ko 2HH	Oslo	Norvegia	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 20 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai, gehienez 90 unitate gehiago	> 150M€
2024ko 2HH	Madrilgo Metroko 1. lotea	Espania	Trenak / Tren-ibilgailuak	Metroko 40 unitateren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	~ 400M€
2024ko 2HH	Erroma	Italia	Autobusak	354 mild-hybrid eta GNK autobusen hornikuntza, eta mantentze-lanetako zerbitzuak	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	> 200M€
2024ko 2HH	Nobina	Suedia	Autobusak	88 autobus elektrikoren hornidura	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 50M€
2024ko 2HH	Omaha	Estatu Batuak	Trenak / Tren-ibilgailuak	6 tranbia hornitzea	Oinarri-kontratua	Berria	Bai, gehienez 29 unitate gehiago	~ 50M€

ONDARE GARBIA BRIDGE-A

(milioi eurotan)



¹Akzioko 1,11€-ko dibidendu gordin arrunta jasotzen du (2024ko uztailean ordaindutakoa).

KUDEAKETA ARDURATSUKO AGINTE KOADROA

ADIERAZLEAK	Errealak 2023ko FY	Helburua 2024ko FY	Errealak 2024ko 1SH	Balorazioa
CO2 isuriak murriztea (%) 1&2 irismena (2019ko oinarri-urtea, SBTi)	% 32,6	% 21,0*	Urteko adierazlea	
CO2 isurpenen murrizketa (%) 3 irismena (produktuaren erabilera) (oinarri-urtea: 2019, SBTi)	% 46,8	% 30,5*	Urteko adierazlea	
CDP jasangarritasuneko balorazioa	B	A-	Urteko adierazlea	
EB taxonomiarekiko lerrokatzea (negozio-bolumena) (%)	% 80	% 82	% 80	●
Maiztasun-indizea	14,1	14,0	14,5	●
Bezeroen asebetetze-balorazioa (1/10)	7,9	7,9	Urteko adierazlea	
Erakundearen osasun-indizea(1/10)	6,6	6,7	Urteko adierazlea	
Sustainalytics-en jasangarritasuneko balorazioa	Arrisku txikia	Arrisku txikia	Arrisku txikia	●
MSCI-ren jasangarritasuneko balorazioa	A	A	AA	●
S&P-ren jasangarritasuneko balorazioa	63	66	Urteko adierazlea	
Ecovadis-en jasangarritasuneko balorazioa	83	75	Urteko adierazlea	

(*) Balioztatzea egiteko SBTi-ra bidalitako helburuak.

● Helburuaren berdina edo hobea
● Aurreko urtekoaren berdina edo hobea, helburua baino okerragoa
● Aurreko urtekoa eta helburua baino okerragoa

ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2024ko Lehen Sei**hilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuandago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago irakurgai, 9. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.

**CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE
FERROCARRILES, S.A. Y
SOCIEDADES DEPENDIENTES QUE
COMPONEN EL GRUPO CAF
(CONSOLIDADO)**



INFORME PRIMER SEMESTRE 2024

JULIO 2024

AGENDA

/ HITZALDIAK ETA ROADSHOW-AK

- / 2024ko irailaren 5ean → Iberian Conference Caixabank-BPI (Madril)
- / 2024ko irailaren 10ean → UBS Quo Vadis Industrials (Digitala)
- / 2024ko irailaren 11n → Autumn Conference Kepler Cheuvreux (Paris)
- / 2024ko urriaren 1-2an → ODDO BHF Iberian Digital Forum (Digitala)
- / 2024ko azaroaren 19an → BNP Paribas Exane CEO Conference (Paris)

/ EMAITZEN ARGITALPENA

- / 2024ko azaroaren 14an → 2024ko 9. hilabeteko emaitzen argitalpena



Harremanetarako: Akziodunentzako eta Inbertsiogileentzako Arreta Bulegoa:

accionistas@caf.net

TRANSPORT SYSTEMS
TRAINS
BUSES
SIGNALLING
COMPONENTS
SERVICES

Your Way
to Future Mobility

**TRUST
IN MOTION**